ZALDI BATEN BIZITZA edo ZALDI ZURIYARENA



Indalezio Bizkarrondo
Bilintx (1831-1876
Donostia, Gipuzkoa)

Doinua: Horra sei bertso kale
Neurria: Neurri berezia. Bederatzi puntukoa
Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1993.
Bilintx – bertsoak eta bizitza. Auspoa. 141 or.

1860 urte inguruan, Donostiako Joxe Mari kale garbitzaileak zaldi zuri bat erabiltzen zuen gurdi garraio; zaldiari ez zioten jateko askorik emango eta argala zegoen oso, dena hezur eta azal. Bilintxek umorezko sorta hau jarri zion eta erabat haserretu zen Donostiako garbiketaz arduratzen zen Gros familia; denbora askoan ez omen zioten Bilintxi hitzik egin. Joxe Mari euren morroia zen.

Gerora, sorta hau Xabier Leteren ahotsean ezagutu dugu, "200 urtez bertsotan" CD bildumari esker (2001 Elkarlanean).

1 Horra sei bertso kale
garbitzaileari
zeina bere izenez
dan **Joxe Mari**
erreza lezazkike
hiru **abemari***
indarra etortzeko
zaldi **zuriari**
animali **hori**
urriki* zait **neri**
falta du **ugari**
egoteko **guri**
kartoiakin egina
dala **dirudi**.

2 Goizero behar dio
eraso **lanari**
zikinak bildu arte
herri **danari**
berriz ere hobeto
bizi ez **danari**
nabarbenduko zaizka
hezurrak **ugari**
ez naiz txantxaz **ari**
eta, **Joxe Mari**
zaldi **gaxuari**
nahi haina **janari**
eman zaiozu, jartzen
ote dan **lodi**.

3 Dago eskeletuen
itsura **harturik**
dina* jan ezak dauka
horla **galdurik**
nola ez da egongo
oso **argaldurik**
edukitzen badute
askotan **baraurik**?
Zaldia horri **nik**
ez det **esperorik**
ezer **ikusterik**
hezurrak **besterik**
ez du behintzat izango
odol-kolperik.

* ***abemari*** = *otoitz izena, "Ave María" hasten dena*
urriki = *erruki*
dina = *berdintzeko adina*

4 Lana sobra du baina
janaria **falta**
urrikigarria da
dakarren **planta**
gaxuak ez lezake
luzaro **aguanta**
flakiarekin ezin
mugitu du **hanka**
pentsu gutxi jan ta
kalian **jiraka**
gaizki bizi **da ta**
indarrik ez **daka**
ezin karriatu du
karro bat **kraka***.

5 Munduan ez liteke
zaldirik **aurkitu**
duenik horrek haina
pena **sufritu**
bihotzik gogorrena
lezake **kupitu***
ez du zahartzera txarra
gaxuak **atxitu***
pausua **nagitu**
ezin da **mugitu**
gutxienaz **ditu**
zazpi **espiritu**
bestela bizirikan
ezin **segitu**.

6 Gizarajuaz danak
pena har **zazute**
baldin bihotz biguinak
badituzute
hasi zan egunetik
eta orain **arte**
zerbitzua egin du
herrian **bastante**
igande ta **aste**
jaiarekin **nahaste**
makina bat **urte**
pasa **dizkitzute**
orain erretirua
merezi **luke**.

ZALDIAREN HERIOTZA

Indarra zeukan arte
zikina **karraio***
eragiten zioten
makina bat **saio**.
Bainan minez jarri da
indarra juan **zaio**!
Nekearen pagua
balaz eman **zaio**!

*OBIZDEA**

Azkenak hemen daude
zaldi argal **baten**
zeinak ez zuen inoiz
pentsu on bat **jaten**
gelditu zaizkan mami
puskak **eramaten**
beleak lan askorik
apenas **daukaten**.

R. I. P. Amen.

* ***kraka*** = *zikin*
kupitu = *gupidaz jarri, errukitu*
atxitu = *atzitu, harrapatu*
karraio = *garraio*
OBIZDEA = *epitafioa, hilartitza*